



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

53. INFORMAZIO BULETINA

> 2011ko Otsaila



GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> Gipuzkoan pertsonako BPGa: Europar Batasuneko batez bestekoaren %139

Eurostatek 2008 urteari dagokion Europako 271 eskualdeen per capita BPGa argitaratu du erosteko ahalmenaren berdintasunari dagokionez, hau da, herrialdeetako prezio-maila desberdina kontuan hartuta.

Honako hauek dira indize altuena duten bost eskualdeak: Inner London (343, EB-27=100), Luxenburgoko (279), Brusela hiriburua (216), Groningen (198) eta Hanburgo (188). Eta per capita BPG baxuena duten bost eskualdeak Bulgarian (horietatik 4) eta Errumanian kokatzen dira, 28 eta 36 arteko indizea dutelarik. Hau da, Batasuneko eskualde aberatsenak (Inner London) hamabi aldiz biderkatzen du eskualde pobreenaren (Bulgariako Severozapaden eskualdea) biztanle bakoitzeko BPGa.

Gipuzkoako per capita BPGa Batasuneko batez bestekoaren % 139an kokatzen da (Eurostaten eta Eustaten datuak), erosteko ahalmenaren berdintasunari dagokionez. Soilik 21 eskualdek gainditzen dute indize hori: Alemaniako 4, Erresuma Batuko 3, Holandako 3, Austriako 2 eta Luxenburgoko, Belgikako, Txekiar Errepublikako, Frantziako, Suediako, Danimarkako, Irlandako eta Finlandiako bana.

Baden-Württembergeko Stuttgart eskualdea (139) eta Salzburgokoak (142) eta Zuid-Hollanda Gipuzkoarekin antzekotasun handiena duten eskualde europarrak dira, pertsona bakoitzeko BPGari dagokionez.

Informazio gehiago.

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_PUBLIC/1-24022011-AP/EN/1-24022011-AP-EN.PDF

> Aurreikuspen ekonomikoak: % 1,8ko hazkundera 2011ri begira

Europako Batzordearen otsaileko aurreikuspen ekonomikoek 2011n Batasunak hazkundera arina izango duela jasotzen dute. Aurreikuspen berrien arabera, EB-27aren aurrerapen ekonomikoa % 1,8 izango da.

Zazpi herrialderen kasuan (Frantzia, Alemania, Italia, Herbehereak, Polonia, Espainia eta Erresuma Batua), aurreikuspenak bereizi egiten dira; herrialde horiek EB-27ko BPGaren % 79 adierazten dute. Zazpi herrialdez osatutako talde honetan Alemaniaren dinamismo ekonomikoa nabarmentzen da, % 2,4ko hazkundera aurreikuspena duela, eta baita Poloniarena ere, % 4,1arekin. Gainerako herrialdeetan aurreikuspenak neurritzokoagoak dira, Frantziaren % 1,7tik Espainiaren % 0,8raino.

Bestetik, energiaren eta lehengaien prezioen bilakaerak inflazioaren aurreikuspenen gorakada eragin du, % 2,5eraino handituz.

Informazio gehiago.


http://ec.europa.eu/economy_finance/articles/eu_economic_situation/2011-03-01-interim_forecast_en.htm

GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2011ko Otsaila



> **EMEKIN**, egitura-funtsetan gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren praktika egokia

Otsailaren 17an eta 18an Egitura-Funtsetan eta Kohesio Funtsean Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasun Politiken Sarearen hirugarren bilkura egin zen Bilbon. Bertan, Berdintasun erakundeetako eta Egitura-funtsen administrazio eta kudeaketako, Autonomia Erkidegoetako, Estatuko Administrazio Orokorreko eta Europako Batzordeko, nola Foru Aldundietako ordezkariak parte hartu zuten.

2009 urtean eratu zenetik, Emakumearen Institutuak eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioak sustatutako Egitura-funtsetan eta Kohesio Funtsean Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasun Politika Sarea erkidegoaren esku-hartzeetan genero ikuspegia barneratzeko koordinazio, analisi eta lankidetzaren organo gisa finkatu da.

Bilkura hartan, **EMEKIN proiektua** praktika egoki gisa aurkeztu zen, Euskadin Egitura-funtsetan aukera berdintasuna barneratzeari dagokionean: **enpresak sortzeko orduan genero ikuspegia kontuan hartzeko Gipuzkoak hartutako konpromisoa**. Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuak garatutako proiektu hau Europako Gizarte-Funtzarekin batera finantzatu da.

EMEKINen aurkezpena Gizon eta Emakumeen Arteko Berdintasun Politiken Sarearen hirugarren bilkuran

[http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/uploads/documentos/EMEKIN-FSE%20AURKEZPENAZ%20\(2011-02-18\).pdf](http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/uploads/documentos/EMEKIN-FSE%20AURKEZPENAZ%20(2011-02-18).pdf)

EMEKIN buruzko informazio gehiago:

<http://www.emekin.net/web/default.asp?idioma=eu>



KOMUNITATEKO POLITIKAK

> Small Business Act: ETEen lehentasuna indartzea

Small Business Act ekimena ETEak hazi eta enplegua sortzen laguntzeko 2008an sortutako EBaren esparru estrategikoa da. 2010 arte, Batzordeak eta Estatu kideek hainbat ekimen garatu dituzte ekimen honen esparruan administrazioko lan-karga arintzeko, finantziarioa eskuratzen laguntzeko eta merkatu berrietara sartzen laguntzeko. Aurreikusitako ekimen gehienak abian jarri badira ere, horien aplikazioaren berrikuspenak aplikazioan sakontzea aholkatzen du.

Lortutakoen artean honako hauek azpimarra daitezke: ehun mila ETEk Berrikuntza eta Lehiakortasunerako Esparru-programaren finantza-tresnen onura eskuratu dute; berankortasunari buruzko zuzentarauak jasotzen duenez, agintari publikoek hogeita hamar eguneko epean ordaindu behar diete hornitzaileei; enpresa bat sortzeko kostuak nabarmen murriztu dira; lineako prozedurak sinplifikatu dira eta eskaintza bateratuak aurkezteko aukerei esker, ETEei kontratazio publikoan parte-hartzea eta Txinan ETEentzako Europako Zentroa irekitzea erraztu da, enpresa txiki eta ertainei merkatu txinatarrera sartzeko laguntza emanez.

ETEei lehentasuna emateko estrategiarekin jarraitzeko asmoa du Batzordeak eta arlo desberdinetan ekintzak burutzea proposatzen du: finantziarioa, mailegu-bermeetara sarbidea, legeria zentzuduna, «leihatila bakarrak» sortzea, etab. Era berean, SBaren aplikazioari lotuta, gobernantza indartzea proposatzen du, modu horretan enpresen erakundeei protagonismoa emanez.

Informazio gehiago.

<http://ec.europa.eu/enterprise/policies/sme/small-business-act/>



> Kalitatezko eskolaurreko hezkuntzarako sarbide unibertsala

Batzordeak haur guztiei bizitza hasiera hobe eskaini eta etengabeko ikaskuntza arrakastatsuen, gizarteratzearen, garapen pertsonalaren eta etorkizuneko enplegarritasunaren oinarriak jarri asmo dituen Ekintza-plana jarri du abian.

Batzordearen “Lehen haurtzaroko hezkuntza eta zainketak: biharko munduan haur guztiei prestakuntza onena eskaintzea” jakinarazpenak jasotzen duenez, lehen haurtzaroan oinarri sendoa jasotzen bada, ondorengo ikaskuntza eraginkorragoa izango da eta ziurrenik bizitza osoan zehar jarraituko du. Horrela, eskola-uzte goiztiarraren arriskua murriztu egiten da, hezkuntzako emaitzen berdintasuna areagotzen da eta gizartearen kostua murriztu egiten da, galdutako talentuari eta gizarte- eta osasun-sistemetan, eta baita sistema judizialetan ere, gastu publikoari dagokionez.

Batzordearen proposamenek honako hauen aldeko deia egiten dute: kalitatezko eskolaurreko hezkuntzarako sarbide unibertsala, finantziazio egonkor eta gobernantza egoki batean oinarritua; hezkuntzari eta zainketei begirako ikuspuntu bateratua, haurtzaroaren beharrak orokorrean kontuan hartuta; adinari egokitutako ikasketa-planak, gaitasun teknikoaren eta pertsona arteko gaitasunen arteko ikaskuntzaren orekaren bidez; langileen profesionalizazioa areagotzea, kualifikazio eta soldata- eta lan-baldintza egokiak izan beharko dituztelarik; kalitatea bermatzeko sistemak eta arauak aurrerakuntzen segimendua egiteko.

Informazio gehiago.

http://ec.europa.eu/education/school-education/doc/childhoodcom_es.pdf



> 170 milioi Europaz bestaldeko Garraio Sareentzat

Europako Batzardeak Europaz bestaldeko Garraio Sareen (RTE-T) funtsen 170 milioi euro jasoko dituzten proiektuak hautatu ditu; Europa osoan garraioaren azpiegitura erabakigarriak eraiki eta modernizatzeko izango dira. Laguntza horiek garraio-konexioen eraikuntzan batera finantzatzeko, produkzioa mantsotzen duten faseak ezabatzeko eta garraioen segurtasuna hobetzeko erabiliko dira. Gainera, garraio jasangarriagoak, garraio-modu desberdinen arteko konexioa sustatzea, proiektuen betearazpena arindu eta erraztea, eta sektore publiko eta pribatuaren arteko elkarteei laguntza eskaintzea nabarmenduko dira.

Lehentasun desberdinak dituzten 24 Estatuetak 51 proiektu hautatu dira, eta horien artean, honako hauek nabarmentzen dira: Itsasoko autobideak, itsasoko bideetatik salgaien transferentziaren bidez gainezka dauden errepideei alternatiba bideragarriak eskaintzeko; Garraio-sistema bateratua eta ingurumenarekiko errespetua duena sortzea sustatzea; eta RTE-T-ren proiektuen betearazpena arintzea eta laguntzea.

Proiektu hauen artean, Madril-Euskadi-Frantziako Muga abiadura handiko trenaren eraikitze-proiektuen idazlana dago, 2,35 milioi euroko zenbatekoarekin.

Informazio gehiago

<http://europa.eu/rapid/pressReleasesAction.do?reference=MEMO/11/101&format=HTML&aged=0&language=EN&guiLanguage=fr>



KOHESIO-POLITIKA

> 2007-2013 programen aplikazioari buruzko Eskualdeetako Lantaldearen txostena

2007-2013 programen aplikazioari buruzko Eskualdeetako Lantaldearen 2010eko txosten estrategikoa kexu da, finantziario-mekanismoen konplexutasunaren ondorioz proiektu europarrak gero eta gehiago administrazio-prozeduretan oinarritzen direlako, garapen-estrategiari lehentasuna eman beharrean.

Eta lurralde-erakundeak eta programa eragileen lanketa estuki lotzearen ondorioz, proiektu errealistagoak eta lurraldeen beharrei hobeto erantzuten dietenak lantzeko aukera dagoela eta era berean funtsak azkar bereganatzea bermatzen dela ziurtasun osoa duela adierazi du.

Politikaren lorpenen eta sortutako egiturazko aldaketen ideia garbiagoa izateko, txostenak aurkezteko metodologia baten inguruan adostasuna lortu beharko litzatekeela uste du, bereziki emaitzetan oinarritutakoa, eta bigarrenik, funtsen erabileran oinarritutakoa.

Informazio gehiago.

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:C:2011:042:0043:0048:ES:PDF>



> Gipuzkoako energiaren jasangarritasuna sustatzeko ekimenak; EGEFekin batera finantzatutako proiektua

Gipuzkoako energiaren Jasangarritasuna Sustatzeko programa 2007-2013 Euskadiko EGEF Programa Eragilearen 3. ardatzaren barruan kokatzen da eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuak garatu du. Programaren helburua energiaren aurrezkiari eta eraginkortasunari dagokionean kudeaketa publiko egokiagoa lortzea eta energia berriztagarriei bultzada ematea da, Estrategia Empresarial argitalpenean jasotzen den moduan.

Programa honek Aldundiko eraikin eta instalazioetako energiaren kudeaketa hobetzeko ekintzak barne hartzen ditu. Zehazki, Foru Aldundiko eraikinen energia-kontsumoaren ereduaren azterketa eta diagnostikoa eta energia kontrolatzeko sistema desberdinen instalazioa.

Sistema horiek, alde batetik, eraikinen energia-kontsumoa erakutsi eta horren inguruan sentsibilizatzeko (ispilu energetikoak), eta bestetik, energiaren kudeaketa hobetzeko eta energia-kontsumoa murrizteko (instalazio fotovoltaikoak, geotermikoak, biomasaren instalazioak, ekipo miniaerosorgailu eolikoak, eguzki-plaka termikoak,...) aukera ematen dute.

Aldundiko hainbat eraikinetan eguzki-plaka fotovoltaikoak instalatu dira: Arteleku-Arte eta Kultura Garaikideko Zentroa, Fraisoro-Ingurumen eta landa ikerketarako laborategia eta Txara I eta Txara II Gizarte Politikako Departamentuaren eraikinak.

Halaber, Iturrarango Lorategi Botanikoan geotrukea instalatzearen ondorioz, lorategi botanikoko negutegian energiaren horniketa-sistema jasangarri bat martxan jarri ahal izan da.

Informazio gehiago:

<http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/uploads/noticias/EE%20-%20Gipuzkoa%20Sostenibilidad%20energetica.pdf>



e-LIBURUTEGIA

> Agenda digitala: zerbitzuen % 82 linean

Administrazio elektronikoaren konparaziozko ebaluazioaren txosten europarrak adierazten duenez, EBan lineako zerbitzu publikoen batez besteko erabilgarritasuna % 69tik % 82ra handitu zen 2009tik 2010era. Europako administrazio publikoek norabide egokian aurrera egiten badute ere, herrialdeen artean desberdintasunak daude oraindik.

Emitza onenak Austria, Irlanda, Italia, Malta, Portugal eta Suediak dituzte; herrialde horietan, oinarrizko zerbitzu publiko guztiak linean daude eta enpresei zuzendutako zerbitzuak herritarrei eskainitakoak baino askoz ere aurreratua daudela dio txostenak.

Aurtengo txostena langabeen eta etorkizuneko enpresarien beharretan oinarritzen da. Era berean, lehen aldiz, txostenak administrazio publiko elektronikoaren tokiko eta eskualdeko dimentsioak kontuan hartzen ditu eta herrialdeen arteko desberdintasun nabarmenak agerian uzten ditu. Bereziki udalerriek eskainitako zerbitzuen kasuan, txikienek udalerrri handiek linean eskaintzen dituzten zerbitzuen erdia besterik ez dute.

Azterketa hori pertsonen linean eskainitako hamabi oinarrizko zerbitzuren (errentaren gaineko zerga, enplegu bilaketa, gizarte segurantzaren prestazioak, dokumentu pertsonalak, ibilgailuen matrikulazioa, obralizentzien eskaera, polizia deklarazioak, liburutegi publikoak, jaiotza- eta ezkontza-agiriak, goi-mailako irakaskuntzako matrikulazioa, etxe-aldaketaren jakinarazpenak, osasun-zerbitzuak) eta enpresei linean eskainitako zortzi zerbitzu publikoren (enpleguaren kotizazio soziala, sozietateen zerga, BEZa, enpresa berri baten erregistroa, datuak estatistika bulegoetan aurkeztea, aduana-aitorpenak, ingurumeneko baimenak, lizitazioak) ingurukoa da.

Informazio gehiago.

http://ec.europa.eu/information_society/newsroom/cf/item-detail-dae.cfm?item_id=6537



> Eurobarometroa: informazio europarrean, gutxiegi

Europako biztanleek gai politiko europarren inguruan informazio urria jasotzen dutela uste dute: % 73ak bere herrialdeko biztanleek informazio txarra dutela uste du. Sei estatutan proportzioa % 80ra iritsi edo gainditzen du: Espainia, Zipre, Frantzia, Grezia, Holanda eta Suedia.

Era berean, hedabideen inguruko konfiantza hauskorra eta mugatua da. Irratiak du konfiantza handiena (pertsonek % 57), telebista (% 50), prentsa idatzia (% 42) eta Interneten (% 35) aurretik.

Informazio gehiago.

http://ec.europa.eu/public_opinion/archives/eb/eb74/eb74_infor_fr.pdf



ADIERAZLEAK

> Energia, garraioa eta ingurumena

Eurostaten laburpen argitalpenak adierazle-sorta zabala jasotzen du, eta horiek energia eta garraioaren adierazle nagusien ikuspegi orokorra eskaintzen dute, klima-aldaketaren norabidean orientazio berezia izanik.

Batasuneko estatu kideen eta herrialde hautagaien datuak jasotzen ditu.

Informazio gehiago.

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/product_details/publication?p_product_code=KS-DK-10-001

> Gipuzkoako eta Europar Batasuneko BPGa: 2010eko 4. hiruhilekoa

Gipuzkoako BPGak urtetik urterako % 0,6ko aldakuntza-tasa izan zuen 2010eko laugarren hiruhilekoan. Tasa hori EB-27aren batez bestekoa (% 2,1) baino baxuagoa da.

Alemaniarren hazkundera (% 4) nabarmentzekoa da, gainerako herrialde nagusienak baino askoz ere handiagoa: Erresuma Batua (% 1,7), Frantzia (% 1,5), Italia (% 1,3) eta Espainia (% 0,6).

Informazio gehiago.

(Eurostat)

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_PUBLIC/2-15022011-AP/EN/2-15022011-AP-EN.PDF

(Eustat)

http://eu.eustat.es/ci_ci/estadisticas/tema_11/opt_1/tipo_1/ti_Hiruhileroko_kontu_ekonomikoa/k/temas.html#axzz1HJzYHuQO